

ATZERRIKO EGONALDIETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK 2022:

1. IZEN EMATEA ETA ORDAINKETAK:

Izen-ematea 2022ko martxoaren 1ean irekiko da ikastoletako ikasleentzat. Gainerakoentzat izen-ematea martxoaren 14tik irekiko da. Izen-ematea plazak agortu arte irekita egongo da.

Egonaldiaren prezioa, guztira, Ikastoletako ikasleak 2500€koa eta gainerakoen kasuan 2760€koa izango da.

Plazaren erreserba: izen ematearekin batera egiten den 1.go ordainketarekin (500€) burutzen da.

Gainerakoa maiatzaren 20a baino lehenago ordainduko beharko da transferentzia bitartez ondorengo kontu korrante batean:

KUTXABANK	IBAN:ES35	2095	0114	6138	3035	1430
EUSKADIKO KUTXA	IBAN:ES49	3035	0122	8812	2001	2930

Bigarren ordainketaren ordainagiria emailaz zirimola@ehi.ikastola.eus helbidera helarazi behar diguzue. Gogoratu ordainagirian, gaztearen izen-abizenak eta Atzerri udalekua jarri behar duela. Bigarren ordainketa epean ez balitz egingo, Ikastolen Elkarteak ikaslea bajaran emateko eskubidea du.

2. DOKUMENTAZIOA:

Egonaldian parte hartzeko **pasaporte eta Europako Osasun txartela** tramitatzea ezinbestekoa da. Bi dokumentu hauek emailaz zirimola@ehi.ikastola.eus helbidera helarazi behar diguzue.

Horretaz gain, familiaren ardurak izango da Covidagatik herrialdeek momentu horretan hartzen dituzten neurriak betetzea: covid ziurtagiria eskatzen badute, hegaldia hartu baino lehen PCR edo antigeno proba eskatzen badute egitea..

3. BAJAK:

Ikasle batek baja emanez gero, matrikulazio epearen barnean kasu guztietan Ikastolen Elkarteak **gordailu dirua** gordeko du (**ez da itzulketarik egingo**). Matrikulazio epetik kanpo, **geratzen den kuota** ordaindu eta gero, honen 90% itzuliko da ondorengo kasuetan, betiere agiri baten bidez frogatuta:

- Gaixotasun edo istripua; medikuaren frogagiria behar da.

- Behar den egonaldira joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrizan larria. (justifikatuta).

Geratzen den kuota ordaindu eta gero aurreko arrazoiengatik ez bada, honen %80ko erretentzioa izango du. Behin egonaldia hasita, ez da dirurik itzuliko.

4. PROGRAMAN ALDAKETAK:

Ikasleei programa banatuko zaie Irlandara joan baino lehenago. Programan aldaketarik egongo balitz, ikasleak eta familiak ahalik eta arinen abisatuko ditu elkarteak. Burutu ezin den ekintza (eguraldiagatik adibidez) beste egun batera pasatuko da; aldatzen edo ezabatzen den ekintza beste ekintzak batengatik ordezkatu da.

5. IKASLEAREN HITZARMENA:

Parte-hartzaileak onartzen du atzerriko herriko, atzerriko organizazioaren eta Euskal Herriko Ikastolak S Coop.en baldintzak betetzea.

Jokabide ilegal bat izanez gero edota bizikidetzak eta errespetu arauak bete ezean zuzenean programatik kaleratua izango da eta bere guraso edo tutore legalek ordaindu beharko dituzte bere bidaiaren aurrerapenaren gastu guztiak. Honetaz gain, jokaera txar hauek ekar ditzaketen ondorio eta erantzukizunak ere beraiei dagozkie.

DATU PERTSONALEN BABESERAKO ERREGLAMENDU OROKORRA

- Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna:
 - Arduradunaren Identitatea: Euskal Herriko Ikastolak EKE
 - Helbide postala: Errotazar bidea 126, Donostia
 - Tel: 943445108
 - Helbide elektronikoa: dblo-lop@ehi.ikastola.eus
- Tratamenduaren helburua:

Zure seme-alaben datu pertsonalak, Euskal Herriko Ikastolak EKE -k antolatzen dituen aisialdiko ekintzen kudeaketa burutzeko tratatuko dira, ikasleek aisialdiko jardueretan egingo dituzten ekintzak antolatzeko helburuarekin. Datu horiek beharrezkoak izango dira beraien estantzia modu egoki eta eraginkorrean kudeatzeko eta zerbitzu hobeto bat eskaintzeko.

- Tratamenduaren legitimazioa:

Datu pertsonalen tratamendurako legitimazioa interesdunaren adostasuna da. Aisialdiko ekintzen kudeaketa aurrera eramateko beharrezkoa izatekotan, osasun datuak eta bestelako datu sentzibleak ere tratatuko dira.

- Tratamenduaren lagapenak:

Aisialdiko jardueren kudeaketa aurrera eramateko beharrezkoak diren zure seme-alaben datu pertsonalak ondorengo entitateei komunikatuko zaizkie: eskumena duen Administrazio publikoa, bankuak eta Catering zerbitzua, dieta berezien kasuetan, osasun datuak barne.

Datu pertsonalak beharrezkoak diren bitartean soilik gordeko dira, hau da, aisialdiko jardura burutzen den bitartean, aisialdiko egonaldia burutzeko behar diren

eskakizunei erantzuna emateko.

- Interesdunaren eskubideak:

Zure datu pertsonalei dagokienez, eskubidea duzu konfirmatzeko Euskal Herriko Ikastolak EKE zure datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez, baita zehatzak ez diren datuak zuzentzea eskatzeko ere. Horretaz gain, datu horiek ezabatzeko eska dezakezu, besteak beste, datu horiek jasoak izan ziren helburua betetzeko jada beharrezkoak ez diren kasuetan.

Edozein eskubide egikaritzeko, Euskal Herriko Ikastolak EKE -en helbide postalera edo helbide elektronikora dblo-lop@ehi.ikastola.eus idatz dezakezu. Edozein kasutan, zure eskaerarekin zure identitatea ziurtatzen duen NAN kopia erantsi beharko duzu. Adin txikikoen datuen kasuan, eskaera haren kustodia duenak egin beharko du.

Era berean, eskubidea izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat egiteko, batez ere zure eskubideen egikaritzean asetzea lortu ez duzunean, idatziz eta hurrengo helbide postalera zuzenduta: Jorge Juan kalea, 6, 28001 - Madril, edo bere egoitza elektronikoen bitartez (www.agpd.es).

GURASO/TUTOREEN HITZARMENA.

Gure seme/alabari baimena ematen diogu Euskal Herriko Ikastolak S Coop. eta atzerriko organizazioak prestatutako programetan parte hartzeko. Ulertzen eta onartzen ditugu ikaslearen hitzarmenean aipatutako baldintzak. Ulertzen dugu gainera arau hauek larriki hautsiz gero gure seme/alaba Euskal Herrira bidali dezaketela eta gastuak gure kontu izango lirakeela.

Euskal Herriko Ikastolak S Coop. , atzerriko organizazioa eta atzerriko familiari onartzen diegu gure izenean atzerrian dagoenean partehartzaileak behar dituen tratamendu mediku, hortzetakoa edo kirurgikoen erabakia hartzea.